



Maiatzak 17: LGTB-fobiaren aurkako Eguna

LGBTfobiaren aurrean zer egiten duzu?





LGTBfobiaren aurrean zer egiten duzu?

Sarrera

Homosexualitatea, lesbianismoa, transexualitatea eta gorputz ez normatiboak orokorrean sobera urtetan zehar lotsa, atsekabe eta sufrimendu hitzen parean jarri izan da gure herrian. Egoera baztertzaila irauli nahian talde feministak, emakume lesbiana taldeak eta gizon homosexual taldeak aintzindariak izan dira.

Egia da, azken hamarkadotan aurrerapauso itzela eman dela bisibilizazioan, onarpen mailan, eta lege-berdintasunean.

Dena den, zoritxarrez, bazterkeria, jazarpena eta abarreko diskriminazioak usu aditzen da gure inguruan.

Bortizkeriak hamaika aurpegi ditu: mehatxu egiten denean, iraundu, persona gutxietsi, lagunengandik urruntzen saiatu. Bortizkeria psikikoa denean autoestima bera kalteturik suertatzen da.

Badira beste hainbat portaera, bortitzatzat jotzen ez direnak, baina ezinegona eta mina sortzen dituztenak, entzuten dituztenei eta, batez ere, pairatzen dituztenei.

LGTBIQfobia normalizatu egin dugu, eta horren ondorioz garrantzia kendu izan zaio LGBTB ikasleek egunero pairatzen duten bortizkeria edo bazterkeria askori.

Ikasleen arteko bortizkeria lazgarria da euren hezkuntza prozesuan, euren garatze prozesuan. Eragileek portaera bortitza sendotzen dute; biktimengan ondorio zuzena du, eta izaeraren garapena kaltetu. Gainontzeko ikasleak ere beharturik sentitzen dira batere egokia ez den bortizkeria giroan euren sozializazioa egitera, eta normaldu egiten da indartsuenarekiko beldurra.

UNESCOren arabera (2013) ikasleek parte hartzen dutenean LGTBfobiaren kasuren batean konpontzeko helduek parte hartzen dutenean baino onuragarriagoa da; eta orokorrean azkarragoa desagertzen da.

Hori dela eta, aurtengo proposamena lekukoen paperan datza, hau da, lekukoek egiten dutenaren edo egiten ez dutenaren garrantziaz hausnartzea eta ekintzak adostea, LGTBfobia ezabatzeko.

Helburuak:

- Ikasleekin gogoeta egitea indarkeriak zerikusia duen beren harremanetan identifikatzeko.
- LGTBfobia identifikatzea eta jarrerak adostea sahiesteko.
- Lekukoen paperari buruz sentzibilizatzea.

Edukiak

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzan 1. Eta 2. Zikloetan

- Onak diren lagunen ezaugarrien hausnarketa, testu labur bitartez.
- Bideoa

<https://www.youtube.com/watch?v=GgfvMHeOiqQ>

- Biktinekiko elkartasunerako akordioa.

Lehen Hezkuntzako 5. Eta 6./ DBH

- Onak diren lagunen ezaugarrien hausnarketa, testu labur bitartez.
- Bideoa

<https://youtu.be/DWd5TrFAhVQ>

- Biktinekiko elkartasunerako akordioa.

IRAKASLERIA

Bideoa

<https://youtu.be/DWd5TrFAhVQ>

- Biktinekiko elkartasunerako akordioa.

FAMILIAK

- Bideoa
- <https://youtu.be/DWd5TrFAhVQ>

- Biktinekiko elkartasunerako akordioa.

IKASTETXEKO EKITALDIA

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan 1. Eta 2. Zikloetan

1. Tutoreak laguntasunari buruz:

Nire laguna da...

Gure inguruan gertatzen diren agresio asko normaltasunez ikusten dugu eta nahi gabe egoera horretan parte hartzen dugun paperaz ez gara ohartzen. Inoiz pentsatu duzu erasotsailearen konplize izan zaitezkeela? Beste era batera esanda, LGTB pertsonen lotutako zenbait egoera ezinezkoak izango lirateke lekukook parte hartuko bagenu.

Oso barneratuta dago zerbait esaten, salatzen dugunean salatari hutsak (txibato) garela, eta hau aldatu behar dugu errotik; txarra den egoera baten aurrean salaketa egiten duena ausarta baita.

Beharrezkoa da hausnartzea lekukoek egiten dutenaren edo egiten ez dutenaren garrantziaz, LGTBfobia prebenitzeko guztiok daukagu ardura.

Lekukoen isiltasunak indarkeria iraunarazten du. Ondorioz, biktimak bakarrik sentitzen dira eta egoeraren arduradun. Hau aldatzeko ezinbestekoa da isiltasun ezaren kultura bultzatzea.

Biolentziari aurre egiteko laguntasunak oso garrantzitsua da; laguntasunak biolentzia baztertzeko du.

Hori dela eta oso garrantzitsua da ondo aukeratzea lagunak.

Ondoren lagun onen ezaugarri batzuk aipatuko ditugu:

Beti ondo tratatzen gaituztenak lagunak dira.

Lagunek laguntzen gaituzte beste pertsona batzuek erasotu, baztertu, iraindu, umiliatu...egiten gaituztenean.

Nahi ez duzuna egitera behartzen bazaitu, pertsona hori ez da zure laguna. Beti esan dezakezu norekin nahi duzun jolastu eta norekin ez.

Zuk ez baduzu nahi jolastu, zure lagunak ulertuko dute.

Ez baduzu nahi muxurik eman ez zaude derrigortuta egitera.

1.1 Haur hezkuntzakoek onak diren lagunen ezaugarriak marraztuko edo ozenki azalduko dituzte.

Lehen hezkuntzakoek onak diren lagunen ezaugarriak idatziko dituzte orri batean.

1.2 Irakasleak ikasleek landu duten liburua koadernatuko du.

1.3 Irakasleak liburu kolektiboa ikasgelan utziko du, beste momentu batzuetan irakurtzeko eta liburu horren bitartez elkarrizketa sortzeko; zer betetzen ari garen ikustea eta zein ez...

2. Bideoa ikusi:

<https://www.youtube.com/watch?v=GgfvMHeOiqQ>

Ikasleei bere hitzekin ikusitakoa azaltzeko eskatuko zaie eta eztabaida bultzatuko da.

2.1. Zerk harritu dituen gehien aipatuko dute.

2.2 Zein da filmaren mezua?

2.3 Zer sentitu duzue bideoa ikustean?

3. Denon artean biktimekiko elkartasunerako proposamenak adostu.

Adibidez: Ixiltasunarekin apurto, norbaiti kontatu, talde bat sortu ikasleentzat erreferente... Adostu portaera posible batzuk LGTBfobia ez onartzeko, hormairudiak egin taldeka eta ikastetxea hornitu.

Lehen Hezkuntzako 5. Eta 6./ DBH

1. Tutoreak laguntasunari buruz:

Nire laguna da...

Gure inguruan gertatzen diren agresio asko normaltasunez ikusten dugu eta nahi gabe egoera horretan parte hartzen dugun paperaz ez gara ohartzen. Inoiz pentsatu duzu erasotsailearen konplize izan zaitezkeela? Beste era batera esanda, genero indarkeriari lotutako zenbait egoera ezinezkoak izango lirateke lekukook parte hartuko bagenu.

Oso barneratuta dago zerbait esaten, salatzen dugunean salatari hutsak (txibato) garela, eta hau aldatu behar dugu errotik; txarra den egoera baten aurrean salaketa egiten duena ausarta baita.

Beharrezkoa da hausnartzea lekukoek egiten dutenaren edo egiten ez dutenaren garrantziaz, LGTBfobia prebenitzeko guztiok daukagu ardura.

Lekukoen isiltasunak indarkeria iraunarazten du. Ondorioz, biktimak bakarrik sentitzen dira eta egoeraren arduradun. Hau aldatzeko ezinbestekoa da isiltasun ezaren kultura bultzatzea.

Biolentziari aurre egiteko laguntasunak oso garrantzitsua da; laguntasunak biolentzia baztertzeko du.

Hori dela eta oso garrantzitsua da ondo aukeratzea lagunak.

Ondoren lagun onen ezaugarri batzuk aipatuko ditugu:

Beti ondo tratatzen gaituztenak lagunak dira.

Lagunek laguntzen gaituzte beste pertsona batzuek erasotu, baztertu, iraindu, umiliatu...egiten gaituztenean.

Nahi ez duzuna egitera behartzen bazaitu, pertsona hori ez da zure laguna. Beti esan dezakezu norekin nahi duzun jolastu eta norekin ez.

Zuk ez baduzu nahi jolastu, zure lagunak ulertuko dute.

Ez baduzu nahi muxurik eman ez zaude derrigortuta egitera.

1.1 Ikasleek onak diren lagunen ezaugarriak idatziko dituzte orri batean.

1.2 Irakasleak ikasleek landu duten liburua koadernatuko du.

1.3 Irakasleak liburu kolektiboa ikasgelan utziko du, beste momentu batzuetan irakurtzeko eta liburu horren bitartez elkarrizketa sortzeko; zer betetzen ari garen ikustea eta zein ez...

2. **Talde handian lehenago, eta txikian ondoren, bullying edo jazarpen hitzen definizioa egiten saiatuko dira ikasleak. Jakin ezean hiztegiara jotzen ahal dute.**

Behin definizioa adosturik, galdera berria botako diogu taldeari: Inoiz aditu al diozu jazarpena sufritu duen gazte bati nola sentitzen den?

3. **Ikusi bideoa**

<https://youtu.be/DWd5TrFAhVQ>

- Ikasleek ezagutzen, ikusten edo entzuten dituzten antzeko egoerak komentatu.
- Horietako bat aukeratu eta horren aurrean lekukoak garenok zer egin pentsatu.

4. **Denon artean biktimekiko elkartasunerako proposamenak adostu.**

Adibidez: Ixiltasunarekin apurto, norbaiti kontatu, talde bat sortu ikasleentzat erreferente... Adostu portaera posible batzuk LGTBfobia ez onartzeko, hormairudiak egin taldeka eta ikastetxea hornitu.

5. **Banaka.**

Denbora txiki bat eman ikasle bakoitzak ikastetxeko leloaren galdera ikurretan ipintzeko ekarpenaren bat pentsa dezan.

IRAKASLERIA

1. Bideoa ikusi:

<https://youtu.be/DWd5TrFAhVQ>

- Denon artean biktimekiko elkartasunerako proposamenak adostu.

Adibidez: Ixiltasunarekin apurtu, norbaiti kontatu, talde bat sortu ikasleentzat erreferente... Adostu portaera posible batzuk LGTBfobia ez onartzeko, hormairudiak egin taldeka eta ikastetxea hornitu.

2. Banaka.

Denbora txiki bat eman irakasle bakoitzak ikastetxeko leloaren galdera ikurretan ipintzeko ekarpenaren bat pentsa dezan.

FAMILIAK

1. Bideoa ikusi:

<https://youtu.be/DWd5TrFAhVQ>

- Denon artean biktimekiko elkartasunerako proposamenak adostu.

Adibidez: Ixiltasunarekin apurtu, norbaiti kontatu, talde bat sortu ikasleentzat erreferente... Adostu portaera posible batzuk LGTBfobia ez onartzeko, hormairudiak egin taldeka eta ikastetxea hornitu.

2. Banaka.

Denbora txiki bat eman aita edo amak bakoitzak ikastetxeko leloaren galdera ikurretan ipintzeko ekarpenaren bat pentsa dezan.

Ikastetxeko Ekitaldia

Ikastetxean aurtengo sinbologia, zirkuluak eta horien barruan galdera ikurrak egin eta han eskegi marrazkiak, leloak, eta abarreko ideiak.

Ikur horren bitartez, ikastetxeak diskriminazioa eta jazarpenen amaiera iragarri nahi du.

- Marrazkiei, leloei argazkiak atera eta partekatu ikastetxe giza sareen bidez: twiter...,
- Ikastetxeko argazkia egin.



LGTBfobiaren aurrean zer egiten duzu?